

Erlijio-zientzien historiaz

Mientras la práctica de los creyentes en Occidente va en declive dentro de las religiones institucionales, en este mismo Occidente las llamadas Ciencias de la Religión gozan de un esplendor desconocido en siglos pasados. El estudio de lo religioso abarca disciplinas muy variadas: filosofía, psicología o antropología, derecho, sociología o historia, etc. tratan de entender su esa realidad difícil y delicada.

Aurreko mendeetatik dator historia

Europa ez da atzo jaioa; bertako kultura, sinismen eta pentsamenduek badute, behinik behin, 3.000ren bat urteko iragan gutxi-asko ezaguna, bere mitologiak, filosofiak eta erakundeak dituena. Ez zuten alferrik lan egin Heladek eta Erromak, eta berorien itzalpera bildu ziren herriek. Posible da gaur, hein batean, Galia, Akitania edo Iberiako kulturen alde erlijiosoa neurriren batean antzematea.

Jakina denez, gizarte batek bere osotasunean erlijio jakin bat hartu eta ezartzen duenean, gaitasun bortitza izaten du egindako hautapen hori zuzenestearren, premiazko tresna intelektualak sortzen (Teologia, Zuzenbidea, etab.). Hala ere, disidentzia erlijiosoak ere tarteren bat izan ohi du horrelakoetan, bartzuetan tradizio erlijiosoari hurrengo hobe-kuntzaren bat emateko (Sokrates edo Jenofanes, Grezian), bestetan jasotako tradizioa goitik behera ukatzeko. Ateismoak ere bere historia du aspalditik.

Erdi Aroa Teologia kristauaren aroa izan zen, betiere mundu greko-erromatarretik eta Eliz Gurasoengandik eskuratutako ekarria ondu eta garatuz, judu eta arabiarrek ere tartean zirela; baina ordutik bertatik erein ziren zenbait mende geroago loratuz joango ziren zientzia zehatzak.

Aro Modernoari zor diogu münduaren ezagutza neurtu eta zenbatua europarrei eskueran jarri izana. Fededunik ez da falta izan ahalegin horretan: Koperniko heliozentrismoaren gurasoa kalonjea zen (1473-1543), edo Mendel genetista fraide agustindarra (1822-1884), eta Descartes-ek (1596-1650), Filosofia modernoaren oinarri nagusi bat jartzean, behartuta edo gogoz, bere burua fededuntzat aurkeztu zuen Discours de la Méthode sonatuan (1637). Hala ere, oro har, zientzialarien eta agintari erlijiosoaren arteko harremanak gatazkatsuak gertatu dira askotan.

Bestalde, azpimarratzekoa da pentsamendu filosofiko modernoak eta garaikideak, modu batera nahiz bestera, une askotan begiratu dutela beren gogoetan erlijioaren arazoa, nahiz eta ez den falta izan zailtasunik erlijioaren topaleku horretan argitasun hobeak lortu edo erlijioaren izaera eta egoera aztertu eta kritikatzeko. Tartean izen handiak egon dira (Hume, Kant, Marx, Freud, Nietzsche, etab.).

Erlijioaren Zientzia berriak

Erlijiotasunaren berezko izaera eta berorren antolakuntza soziala bereizi behar ditugu, guxtienez, Erljioaren Zientziak aipatzean.

Izan ere, alde batetik, erlijiotasuna bere soiltasunean begira daiteke, esperientzia per-



tsonal eta mistikoetan, fededunen psikologian, erlijio guztiek beren azken funtsean izan dezaketen balio, sinesgai eta bizipenetan. Eta bestetik, erlijiotasun pertsonala gizartean eta lagunartean bizi ahal izateko eratu ohi diren Erlijioek antolakuntza sozialak dituzte, Eliza kristauean, Sinagoga juduan, Umma islamiarrean edo nahi bada Sangha budatarrean ere.

Erljio pertsonalaren barnetasun soila, bere izaerara biltzen den hura, erljioaren fenomenologiari, psikologia eta psikoanaliari dagokie, teologia eta filosofia ere gogoan ditugula. Ikusten da, bada, nolako hedadura zabalak izan dezaketen erlijiotasuna bere berezko izaeran aztertu eta ezagutu nahi duten zientzia hauek. Jakite-eremu horietako bakoitzak mundu kultural zabala da, alde batetik urrundik datorrena (teologiaren kasuan, adibidez), baina baita XX. mendean sortu eta garatu dena ere (Jung-en psikologia analitikoak erljio-azterketan jarri duen arreta tartean dela, esate baterako).

Horri guztiari esker, gaur egun ezinezkoa gertatzen da erljioaren alde eta aurka azalduzko iritzi aldeak beste gabe azken epaitzat ematea, erljio-zientziek erakutsi duten arazoaren konplexutasuna aintzakotzat hartu gabe.

Mundu osoko jatorrizko erlijiotasunak aztertu dira gaurko herri "primitibo" deituetan, banan-banan eta elkar konparatuz, agian sorburuetako erljioa ere ispilatu dezaketelakoan. Era berean, milaka urtetako esperientzia erlijiosa ere arakatu da erljio handietan, Indian edo Egipton bezala Kristautasunaren lehen

ibilera historikoa argitara ekarriz edo testu sakratu eta mitologiak beren zinezko balioan ulertzeko metodoak sortuz.

Erljioen ezagutzan lan erraldoia egin du XX. mendeak: mundu osoko erljioetara ireki da jakitunen ikerlana, eta harrigarriro joan da Erljioen Historia Konparatua lantzen, hainbat testu-itzulpen edo irakurlearen eskura jarritz. Euskaraz ere badugu orain erljioetako zenbait antologia txukun eta erabilgarri.

Zientzia orokor ezberdinetako hainbat aitzindari erljioaz ere arduratu da; adibidez, Soziologian, Antropologian, Filosofian edo Psikologian halakoak hain ugari izan direnez, izen bakan batzuk ematen ibiltzea ez du merezi.

Azpitarratzekoak dira batik bat historiografian, erljioen historiaz jardun duten iker-tzaile eta obra idatzi handiak, Europa, Asia eta Estatu Batuetako Unibertsitateetan burutuak. Historia horretan hainbat gauza argitu da, nahiz eta asko dagoen argitzeko. Balioespen zahar asko eta iker-jarrera zaharkiturik aski erori da, ziurtasun eta argi berriak eskuratzen ziren bitartean.

Jakin-nahia duenak eskura ditu jakite-alor ezberdinetatik aurreko hamarkadetan esan direnak. Nahikoa da gutxienez gure hiriburuetakoa liburudenda eta Liburutegi onek edo ikustatzea, esoterismo kaskarretan erori gabe.

Erljio instituzionalak krisian daude, baina erljioen hondoko funtsez sekula baino hobeki lan egin da XX. mendean, eta alor horretan sakontasun berria lortu dute zientziek.

Joseba Intxausti